

## KREDITUAK AITORTZEKO PROZEDURA<sup>1</sup>

Gizarte Langintzarako Unibertsitate Eskolako akademia antolakuntza eta baliokidetzako batzordeak (AABB) izango du graduako ikasketa plan berrira egokitzeko prozesuak ebazteko ardura, eskolako ikastegi batzarrak onartutako **egokitzapen taula** aplikatuz eta, modu berean, kontutan hartuta arautegiak dioela **irakasgaietako kredituak** honako arrazoi hauengatik **baliozkotu ahal direla**:

- ✓ **Goi mailako beste ikasketa ofizial** batzuetan egindako kredituen bidez. (graduak, lizentziaturak, diplomaturak, unibertsitate master ofizialak eta lanbide hezkuntza)
- ✓ Beste titulu batzuk lortzera bideratutako **unibertsitateko ikasketa ez ofizialetan** egindako kredituen bidez. (Unibertsitateen berezko tituluak: adituak, m asterrak)
- ✓ Behar bezala **egiaztatutako lan arloko esperientziaren eta esperientzia profesionalaren** bidez, esperientzia hori nahikoa bada eta bat badator **graduako tituluari lotutako gaitasunekin**. (Gizarte langile gisako esperientzia)

Lan arloko esperientziagatik, esperientzia profesionalagatik eta unibertsitateko ikasketa ez ofizialengatik, guztira, gehienez ere ikasketa planeko kredituen kopurua, **gehienera, 36 kreditu** izango dira.

Nolanahi ere, **ezin izango da gradu amaierako lana baliozkotu**.

Honekin guztiarekin, batzordeak onartutako espediente guztiak aztertuko ditu, bakoitzaren prestakuntza ibilaldia balioetsiz, barne direlarik jatorriko diplomatura eta 2. ziklo eta graduondok o prestakuntza, direla titulu ofizialak, direla berezko tituluak. Halaber, egiaztatutako esperientzia profesionala balioetsiko da, beti ere, UPV/ EHUren graduako tituluaren aurreikusten diren jakintza eta gaitasunetara egokituko badira.

**Esperientzia profesionala egiaztatze**ko, aurkeztu behar dira lan bizitzaren historia, lan kontratua eta, lanpostua eta bertan burututako eginkizun eta gaitasunen deskribapena jasoko dituen egiaztagiria, erakundeak sinatuta.

Espediente bakoitza aztertu eta balioztatu ondoren, **erabaki bat** emango da.

---

<sup>1</sup> Kredituak aitortzeko prozedura **uztailaren 2ko 861/ 2010 errege dekretuak** arautzen du, zeinak aldatzen duen urriaren 29ko 1393/ 2007 errege dekretua, unibertsitate ikasketa ofizialak antolatzen dituen.